90 BERRIAK
ERAKUSKETA
SAN TELMO MUSEOA
2023.03.04 // 2023.06.04

San Telmo Museoa
Zuloaga pza. 1
20003 Donostia / San Sebastián
www.santelmomuseoa.eus

<u>Ordutegia</u>
Martxoaren 26ra arte
Asteartetik igandera: 10:00 - 19:00
Astelehenetan itxita, jaiegunetan zabalik

Martxoaren 28tik aurrera
Asteartetik igandera: 10:00 – 20:00
Astelehenetan itxita, jaiegunetan zabalik

<u>Prezioak</u>
Sarrera orokorra 6€ | Murriztua 3€
Astearteetan dohainik

ANTOLATZAILEA

STM San Telmo Museoa | DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | donostia kultura

ERAKUNDE BABESLEAK

EUSKO JAURLARITZA — KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA | GOBIERNO VASCO — DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA | Gipuzkoako Foru Aldundia — Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua | ETORKIZUNA ORAIN

6.000 ale / 0,25€ bakoitza
Diseinua. Patricia Bolinches Grafikoa. Belén Moreno




Nekane Aramburuen **90 berriak** erakusketa 80ko hamarkadaren azken urteetan, 90eko hamarkadakoetan eta milurteko berriaren hasierakoetan lan egin zuten hainbat kolektibo artistikotara egindako hurbilketa da, beren energiak konpromiso sozial, politiko, intelektual, feminista eta ekologistetatik abiatuta ikuspegi alternatibo, periferiko eta mugaz gaindikoekin batu zituzten kolektibo horiei buruzkoa. Kultura-ekosistema hura zaintzen eta transmititzen lagundu nahi du erakusketak, hainbat ekimen eta guneren espiritua jasoz, haietako batzuk oraindik ere jardunean daudenak nazioartean edo gure artean, hala nola **El Gallinero, Zelai Azpi, Zapatari, Arteleku, La Fiambrera, Las Chamas** edo **Consonni**.

Proiektuan 146 sortzaile eta kolektibo integratzen dira lehen aldiz argitara aterako diren zenbait produkziorekin batera, guztiak ere engranaje koral baten barruan duten zentzuaren ikuspegitik begiratuta, non alderdi partizipatiboak betiere indibidualtasunak gainditzen dituen.

Mundu-panorama konplexu baten esparruan, 90eko hamarkadako urteek konplexutasun bereizgarri batzuk izan zituzten zenbait egoeraren bilakaeraren ondorioz, hala nola eredu ekonomikoen eraldaketa. Gainera, 1994 eta 1997 bitarteko mikro-gertakariz gainezka dagoen trantsizio-une batean gertatzen da, eta aldi horren ondoren estrategien eta arlo publikoan zein pribatuan jarduteko moduen berritze bat nabarmentzen da, 1997tik 2001erako aldian ageriko egingo dena.

Erakusketaren ibilbidea kronologikoa da, bilakaera hori biltzen du eta gertakari sozial paraleloak ere nabarmentzen ditu. Garai hartan "teknologia berriak" deitutakoen erabileraren garrantzia aztertuz hasten da, batez ere bideo-artearen posibilitateen ikerketatik abiatuta garatu zirenak. *Bideoaldia* izan zen horren adibide adierazgarria, esfortzu kolektibo oso baten adibide gisa. San Telmoko Abangoardia Aretorako hurbilketa bat egin ondoren, gune artistikoen garrantzia eta Uribitarteko tailerren inguruan sortutako komunitateen, Gasteizko eta Bilboko hiriguneen edo Gipuzkoako aldiriko Zelai Azpi, Sare-etxea eta El Gallinero guneen adierazgarritasuna azaltzen da. Aipatzekoa da, halaber, Artelekuren rola, 1987az geroztik jardunean baitago, produkziorako eta prestakuntzarako nodo gisa. Edizio alternatiboen sorta bat, tesien azalpen jakin batzuk, eta beren izaera erlazional eta partizipatiboarengatik gailendu ziren ekintzak aurkezten ditu erakusketak. San Telmoko liburutegian kontsultatu daiteke ikus-entzunezko produkzio-zentroen erreferentzia (CINT, Larrotxene edo Bilboko Arte Ederren Fakultatea).

Nekane Aramburu

## JARDUERAK

<u>Hitzaldiak</u>
19:00 Sarrera librea
lekuak bete arte

*90eko Hamarkada, hain ederra izan al zen?*
Odile Kruzeta, kazetaria
Apirilak 19, EUS

"*L'after du Vingtième Siècle. L'art dans les années 1990*"
Nicolas Bourriaud, erakusketa komisarioa, arte kritikari eta historialaria, arte garaikididean espezializatua.
Apirilak 28, euskara eta gaztelaniazko itzulpenarekin

"*Casos de estudio: mesa de diálogo con artistas*"
Peio Agirre, Asier Pérez, Beatriz Silva
Mod: Nekane Aramburu
Ekainak 2, CAS
+streaming

<u>Bisita gidatuak</u>
Martxoaren 11tik aurrera.
Erakusketaren bisita gidatuak, astearteetan eta larunbatetan.
Astearteetan:
10.30 CAS eta 18:00 EUS
Larunbatetan:
10.30 EUS y 18.00 CAS

Bisitak doakoak dira, museoko sarrera eskuratuta.
Izen-emateak webgunean.

# LOS NUEVOS 90 BERRIAK 90 LOS NUEVOS 90 BERRIAK 90

LOS NUEVOS 90 BERRIAK 90 LOS NUEVOS 90 BERRIAK 90

